

**KULTUR PROGRAMETARAKO  
DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO  
OINARRIAK**

**2008**

## 1. Helburua

---

Deialdi honen xedea irabazi-asmorik gabeko elkarteei eta taldeei diru-laguntzak emateko prozesua arautzea da. Taldeek Pasaiaiko udalerrian 2008. urtean garatuko dituzten jarduerak eta programek Kultura eta Hezkuntza Sailaren helburuekin bat etorri beharko dute.

Jarraian zerrendatzen diren ataletan oinarrituko dira diru-laguntzak:

- a) Urteko jarduerak
- b) Ezohiko jarduerak.

Udalak ezohikotzat joko ditu aparteko izaera izateagatik urteko programaketa egiterakoan aurreikusi ez diren jarduerak. Kultura eta Hezkuntza Batzordeak erabakiko du jarduera bakoitza "ezohikoa" den ala ez.

## 2. Aurrekontuaren aurreikuspena

---

Pasaiaiko Udalak 2008. urteko aurrekontuaren partida bat diru-laguntzak emateko gorde du.

Diru-laguntzen zenbatekoa ebazpenaren unean dagoen diru-kredituaren araberkoa izango da, eta udalak ez du aurrekontuetako maileguak handitzeko derrigortasunik.

## 3. Irizpide orokorrak

---

Diru-laguntza borondatezkoa eta behin-behinekoa izango da.

- a) Diru-laguntza emateak ez du udala, beste edozein kasutarako, horretara derrigortzen, eta ez du ezartzen eskubiderik edo aurrekaririk gerora eman daitezkeen diru-laguntzetarako.

## 4. Onuradunak

---

Diru-laguntza kultura arloan egitasmoak bultzatzen dituen irabazi-asmorik gabeko Pasaiaiko edozein erakunde publikok nahiz pribatuk eskatu ahal izango du; edo bertakoa ez izanik ere, Pasaiaiarako, kultura-arloari dagokionez, interesgarriak diren egitasmoak bultzatzen dituen edozein erakundek.

## 5. Onuradunen betebeharrak

---

Elkarteek **Pasaiaiko Udaleko Elkarten Udal Erregistroan** izena emanda egon behar dute; edo beste erregistro publikoren batean, euren egoitza Pasaian ez badute.

- a) Diru-laguntza jasotzeko, 8. puntuan jasotako hizkuntza-baldintzak bete beharko dituzte elkarteek.
- b) Onuradunek diru-laguntzarik edo laguntzarik jasotzen badute helburu bera duen beste edozein administrazio edo erakunde pribatutik edo publikotik, Kultura eta Hezkuntza Sailari jakinarazi beharko diote.
- c) Diru-laguntza jasoko duten jardueren publizitatean **Pasaiaiko Udalaren laguntza dutela adierazi** beharko da.
- d) Horrez gain, jarduerari buruzko informazioa helaraziko zaio udalari, udal webgunean argitaratu ahal izateko.

## 6. Eskaerak

---

- Eskaera-orriak Pasaia Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailaren bulegoetan (Euskadi Etorbidea 61, 20110 Pasaia) aurkeztuko dira edo kultura@pasaia.net helbide elektronikora bidaliko dira.
  - ✗ **Urteko ohiko jardueretarako** diru-laguntza-eskaerak **uztailaren 4a** baino lehenago aurkeztuko dira.
  - ✗ **Ezohiko jarduerentzako** eskaerak ekintza egin baino hilabete eta erdi lehenago eskatuko dira, gutxienez.
- Eskaerak **udalak diru-eskaeretarako prestatuta daukan ereduari** jarraitu beharko dio. Idazki hori eskuragarri egongo da Kultura eta Hezkuntza Sailean edota udal webgunean (www.pasaia.net). Eskatzaileak idatziaren **atal guztiak bete** beharko ditu.

Eskaerekin batera, **DOKUMENTU** hauek aurkeztu beharko dira:

1. **Ekintzen programaren originala.** Diru-laguntza eskatzen den jarduera bakoitzeko programa aurkeztu beharko da.
  2. **Sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatza.** Sarreraren kasuan, nondik eta zenbat jasotzen den zehaztuko da. Gastuetan, zertan eta zenbat gastatu den.
  3. Zenbat bazkidek osatzen duten eta horietatik zenbat diren pasaiatarrak.
  4. Elkarte eskatzailearen legezko ordezkari den pertsona fisikoaren nortasun-agiriaren fotokopia.
  5. Eskaera sinatzen duenak zinpeko deklarazioa egin beharko du, eta hau zehaztu beharko du: helburu bererako diru-laguntzarik eskatu duen beste erakunde edo instituzioren batean, zein egoeratan dagoen eta lortu badu, zenbatekoa izan den.
  6. Estatutu eta eratze-eskrituren fotokopia, aurreko urteetan aurkeztu ez badira, edo aurkeztu arren, datuak aldatu badira.
- Eskaera-orrian edota hari erantsita aurkeztu beharreko dokumentuetan akatsik baldin badago, edo osatu gabe baldin badaude, interesdunek hamabost eguneko epea izango dute, emaileak eskatzen duenetik kontatzen hasita, aurkitutako akatsak zuzentzeko, hala egin ezean, eskaerari uko egiten diola ulertuko dugu eta prozedura artxibatuko dugu.
  - Jarduera bera egiteko, ezingo da udalaren sail bat baino gehiagotan eskatu diru-laguntza.
  - Ez da onartuko Pasaia Udalak onartutako diru-laguntzaren bat zuzitzeke duten elkarten diru-laguntza eskaerarik.

## 7. Ebaluazioa eta diru-laguntza ematea

---

Eskaerak Kultura eta Hezkuntzako informazio-batzordeak aztertuko ditu. Ondoren, eskaeren egokitasuna neurtu eta gobernu-batzordeari aurkeztuko dio irizpena, behin betiko ebazpena egin dezan.

Urteko ohiko jardueretarako diru-laguntzen eskaerak hiru hilabeteko epean ebatziko dira, eta 45 egunetan, ezohiko jardueretakoak. Ebazpena idatziz jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Diru-laguntza emateko alderdi hauek neurtuko dira, eta eskaerarekin batera aurkeztuko den memorian jasoko dira:

- a) Talde eskatzaileari dagokionez:
  - Taldeak zenbat urte daramatzen jarraian lanean.
  - Antolatzeke zer gaitasun erakutsi duen.
  - Bazkide- edo kide-kopurua.
  - Beste erakunde batzuekin batera egindako programak.

b) Jarduerari dagokionez:

- Ekintzaren gizarte-esparrua.
- Pasaiaiko egoera soziokulturalean zer kalitate eta garrantzi duen.
- Erabiltzaileentzat doan edo merke izatea.
- Aurreikus daitekeen erabiltzaile-kopurua.
- Euskararen erabilera.

## 8. Hizkuntza-baldintzak

---

Pasaiaiko Udalaren iritziz, euskararen erabilera normalizatzeko garrantzi handikoa da udalerrian kultura arloan jarduerak antolatzen dituzten taldeek ere euskara sustatzeko neurriekin bat egitea, hori dela-eta:

- Jardueretan euskara erabiltzea baloratu egingo da; hizkuntza horretan egiten direnei puntuazio altuagoa emango zaie.
- Pasaian euskararen erabilera normaltzeko udal-ordenantzaren 45. artikuluan jasota dagoena derrigorrez bete beharko dute elkarteek, diru-laguntza jaso nahi badute. Beraz, diru-laguntza jasotako jarduerari buruzko idatzi, iragarki, ohar, propaganda, publizitate eta gainerakoak euskaraz edo bi hizkuntzetan idatzi eta ezagutzera eman beharko dira.

Ekitaldi publikoetan ere, ahozko zein idatzizko jarduna euskaraz edo bi hizkuntzetan egin beharko da, betiere euskarari lehentasuna emanaz.

- Elkarteko eguneroko jardunean ere euskara sustatzeko neurriak hartzen saiatuko da elkarteak, elkarteko kideen arteko euskararen erabilera areagotzeko: barne bileretan, barne idatzietan eta errotuluetan, eta abarretan.

## 9. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa

---

Emango den diru-laguntzaren zenbatekoa onartutako kopurua izango da eta elkarte titular eskatzaileari emango zaio. Horrek, bere aldetik, jardueren jarraipenerako eta kontrolerako eskatuko zaion informazio guztia emateko konpromisoa hartuko du.

Diru-laguntza guztien baturak ez du gaindituko udalak urteko jardueretarako onartutako diru-kopurua.

### Konturako abonauak

Oro har, diru-laguntza bi alditan ordainduko da:

- %75 onartu ondoren, eta akordioaren jakinarazpenarekin batera.
- Gainerako %25, diru-laguntza justifikatu ondoren.

Konturako abonuetan beste ehuneko batzuk ezarri ahal izango dira, diruz lagundutako jardueraren erritmoak hala eskatuko balu.

Diru-laguntzaren zenbatekoak ez du gainditu behar elkarte onuradunak jarduera antolatzeko behar duen kopurua, ez diru-laguntza udalak ematen duenean, ez beste erakunderen batek eman behar duenean.

Erabakiak hartu eta jakinarazteko, gehienez ere hiru hilabeteko epea dago, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Diru-laguntza zerbitzu publiko bati dagokion transferentzia denez, administrazioaren isiltasunak diru-laguntza ezetsi egin dela esan nahi du.

## 10. Diru-laguntzaren justifikazioa

---

- Urteko jardueretarako: diruz lagundutako jardueraren edo jardueren memoria zehatza 2009 urteko **urtarrilaren 16a** baino lehenago aurkeztu behar da.
- Ezohiko jardueretarako: **jarduera egin eta hilabeteren buruan** memoria zehatza aurkeztuko da.

Bi kasuetan:

- a) Gastu eta diru-sarreraren balantzea aurkeztuko da, baita emandako zenbatekoari dagozkion gastuen jatorrizko ziurtagiriak edo fotokopia konpultsatuak ere.
- b) Jarduera honen publizitaterako erabili izan diren kartel, programa, argitalpen eta dokumentu grafiko eta idatziaren ale bana aurkeztuko da.

Emandako zenbateko guztia edo zatiren bat gastatu ez bada, kopuru osoa edo soberan geratu dena udalaren diru-kutxara itzuli behar da.

## 11. Diru-laguntza itzultzea

---

Baldintza hauetakoren bat gertatzen bada, diru-laguntzaren ordainean jasotako diru-kopurua itzultzeko eska dezake udalak, baita diru-laguntza ordaindu denetik berandutza-korrituak ere.

- a) Diruz lagundutako jarduera burutu ez bada edo funtsezko aldaketaren bat izan badu Kultura eta Hezkuntza Sailak jakin eta onartu gabe.
- b) Lortutako diru-laguntzaren helburuak betetzen ez badira.
- c) Diru-laguntza izendatutako jarduerarako ez baizik eta beste zerbaiterako erabili bada.
- d) Publizitatean Udalaren babesletza jaso ez bada.
- e) Eskatutako dokumentuak ez badira aurkeztu zehaztutako epean.
- f) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Lege Orokorren 37. artikuluan aurreikusten den beste edozein arrazoi bada.



**BASES PARA LA  
CONCESIÓN DE SUBVENCIONES  
PARA  
PROGRAMAS CULTURALES**

**2008**

## 1. Objeto

---

El Departamento de Cultura y Educación del Ayuntamiento de Pasaia, establece las presentes bases para la regulación de la solicitud y concesión de ayudas económicas a entidades sin ánimo de lucro que durante el año 2008 desarrollen actividades que, por su proyección e interés, coincidan con los objetivos de este departamento.

Las ayudas económicas se podrán solicitar para:

- a) actividades de carácter anual
- b) actividades de carácter extraordinario

Se consideran extraordinarias aquellas actividades que, por sus características, no hayan podido ser previstas con anterioridad. La Comisión Informativa de Cultura y Educación será la que otorgará, o no, la consideración de "extraordinaria".

## 2. Previsión presupuestaria

---

El Ayuntamiento de Pasaia ha destinado para el año 2008 una Partida Presupuestaria para la concesión de ayudas y subvenciones.

Los programas de ayudas y subvenciones quedarán condicionados a la existencia de dotación presupuestaria adecuada y suficiente para dichos fines, sin que exista obligación alguna de proceder a incrementar los créditos presupuestarios.

## 3. Criterios generales

---

- a) La subvención tendrá carácter voluntario y eventual
- b) Su concesión no implica obligatoriedad por parte del Ayuntamiento y no crea derecho ni establecerá precedente alguno para futuras subvenciones.

## 4. Beneficiarios

---

Podrá solicitar subvención cualquier entidad pública o privada que, sin ánimo de lucro, desarrolle programas englobados en el área de cultura, y tenga su domicilio en el ámbito municipal de Pasaia o, sin tener domicilio en el municipio, impulse en él actividades de interés cultural para el mismo.

## 5. Obligaciones de los beneficiarios

---

- a) Las asociaciones deberán estar inscritas en el **Registro Municipal de Asociaciones del Ayuntamiento de Pasaia**, u otros registros públicos en el caso de que no tengan su domicilio en el municipio.
- b) Las asociaciones que opten a estas ayudas deberán cumplir las condiciones referidas al idioma recogidas en el punto 8.
- c) Comunicar al Departamento de Cultura y Educación la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualquier administración o ente, tanto público como privado, así como las ayudas que financien su funcionamiento ordinario.
- d) En toda publicidad de la actividad subvencionada que se realice, **deberá constar la colaboración del Ayuntamiento de Pasaia**.

- e) Asimismo, se facilitará al Ayuntamiento información sobre las actividades para su inclusión en la página web municipal.

## 6. Solicitudes

---

Las solicitudes deberán ser presentadas en las dependencias del Departamento de Cultura y Educación del Ayuntamiento de Pasaia (Euskadi Etorbidea, 61-20110 Pasaia) o enviadas por correo electrónico a [kultura@pasaia.net](mailto:kultura@pasaia.net).

- ✘ Las solicitudes de **carácter anual** habitual deberán presentarse entre el antes del **4 de julio**.
- ✘ La solicitud para **actividades extraordinarias** se presentarán, como mínimo, con un mes y medio de antelación a la celebración de la actividad.
- Se redactarán de acuerdo con el **modelo de instancia oficial para subvenciones** disponible en el Departamento de Cultura y Educación y en la página web municipal ([www.pasaia.net](http://www.pasaia.net)). El solicitante **rellenará todas las casillas del impreso**.

Deberán presentarse acompañadas por la siguiente **DOCUMENTACIÓN**:

1. Original del **programa de actividades** a realizar. Será necesario presentar la relación de todas las actividades por las que se solicita la subvención.
  2. **Presupuesto detallado de ingresos** (procedencia e importe) y **gastos** (concepto e importe).
  3. **Número de socios/as**, especificando cuántos de ellos/as son pasaitarras.
  4. **Fotocopia del D.N.I.** de la persona física representante legal de la entidad solicitante.
  5. **Declaración jurada** de la persona firmante de la solicitud, señalando, expresamente, si ha solicitado subvención para la misma finalidad a alguna otra institución u organismo, la situación de la misma y, en su caso, la cantidad concedida.
  6. Fotocopia de los Estatutos en el caso de que no se hayan aportado en años anteriores o, aun habiéndose presentado anteriormente, cuando se hayan modificado.
- Cuando la instancia de solicitud y/o la documentación preceptiva que la acompaña adolecieran de algún error o fueran incompletas, se otorgará a la entidad solicitante un plazo de quince días hábiles, contados a partir de la fecha de la comunicación, para subsanar los defectos detectados. Transcurrido dicho plazo sin que lo hubiera hecho, se desestimará la petición y se archivará el procedimiento.
  - No podrán solicitarse subvenciones para el mismo programa a distintos Departamentos de este Ayuntamiento.
  - No se admitirán solicitudes de subvención de entidades que tengan pendiente de justificación otra subvención económica concedida por el Ayuntamiento de Pasaia.

## 7. Evaluación y resolución

---

Las solicitudes serán examinadas y evaluadas por la Comisión Informativa de Cultura y Educación, que elevará dictamen a la Comisión de Gobierno para su resolución definitiva.

Las solicitudes serán resueltas en un plazo máximo de tres meses, cuando se trate de actividades anuales, y en un plazo máximo de 45 días, cuando se trate de actividades de carácter extraordinario. La resolución se notificará por escrito a los solicitantes.

Para la concesión se considerarán los siguientes aspectos, que deberán ser acreditados en una breve memoria que se adjuntará a la solicitud:

a) Respecto a la entidad solicitante:

- Los años de funcionamiento continuado.
- La capacidad demostrada de organización.
- El número de socios o colaboradores.
- Elaboración de programas coorganizados con otras entidades.

b) Respecto a la actividad:

- La proyección social de la actividad.
- La calidad e importancia dentro del panorama socio-cultural de Pasaia.
- La gratuidad o bajo coste para el público.
- El número de destinatarios previsto
- La utilización del euskera.

## 8. Condiciones lingüísticas

---

El Ayuntamiento de Pasaia en la consecución de la normalización del uso del euskera considera de fundamental importancia que las entidades que realizan actividades de interés municipal en el área de cultura en el municipio, se comprometan con el mismo fin, por lo que:

- Se valorará el uso del euskera en la realización de las actividades, otorgándose una mayor puntuación a las que se realicen en esta lengua.
- La entidad subvencionada debe comprometerse a cumplir lo establecido en el artículo 45 de la "Ordenanza para la normalización del uso del euskera", por tanto, los anuncios, propaganda, publicidad y demás escritos referidos a la actividad subvencionada deberán estar en las dos lenguas oficiales. También en los actos públicos la comunicación, tanto oral como escrita, deberá realizarse en las dos lenguas oficiales, dando prioridad al euskera.
- La entidad beneficiaria procurará las medidas oportunas para fomentar y potenciar el uso del euskera entre sus miembros en las reuniones internas y en rúbricos y escritos internos, etc..

## 9. Cuantía y abono de la subvención

---

La subvención se concederá en la cuantía que se apruebe y se librará a la entidad titular solicitante, con el compromiso de ésta de facilitar cuanta información se le solicite sobre el desarrollo de las actividades para su seguimiento y control.

La suma total de las subvenciones no podrá rebasar la cantidad marcada por el Ayuntamiento para actividades anuales.

### • Abonos a cuenta

Por regla general, la subvención se abonará en dos partes:

- El 75%, una vez aprobada y junto con la notificación del acuerdo
- El 25% restante, previa justificación de la misma.

Podrán establecerse otros porcentajes de abonos a cuenta, si así lo exigiera el ritmo de ejecución de la actividad subvencionada.

El importe de las subvenciones, en ningún caso, podrá ser de tal cuantía que, aislada o en concurrencia con otras subvenciones, supere el costo de la actividad que vaya a desarrollar la entidad beneficiaria.

El plazo máximo para dictar y notificar las resoluciones que correspondan será de tres meses contados a partir del día siguiente al de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Al ser la subvención una transferencia referida a un servicio público, el silencio administrativo tendrá carácter desestimatorio.

## 10. Justificación de la subvención y rendición de cuentas

---

- Actividades anuales: se presentará, antes del **16 de enero** de 2009, una memoria detallada de la actividad o actividades subvencionadas.
- Actividades extraordinarias: se presentará una memoria detallada de la actividad, **dentro del mes siguiente** a la realización de la misma.

En ambos casos se incluirá:

- a) El balance de gastos e ingresos, así como las facturas originales, o fotocopias compulsadas, de los gastos e ingresos por el importe de la cantidad concedida.
- b) Un ejemplar de los carteles, programas, publicaciones y cuanta documentación, gráfica y escrita, haya sido elaborada para la publicidad de la actividad en cuestión.

En el caso de que no se hubiere gastado, total o parcialmente, la subvención concedida, la cantidad total o sobrante deberá ser reintegrada a las arcas municipales.

## 11. Reintegro de la subvención

---

El Ayuntamiento podrá exigir la devolución de las cantidades abonadas en concepto de subvención y de los intereses de demora desde el momento del pago de la subvención, cuando medie alguna de las siguientes circunstancias:

- a) Cuando no se haya llevado a cabo la actividad subvencionada o se haya producido un cambio sustancial de la misma sin previo conocimiento y acuerdo con el Departamento de Cultura y Educación.
- b) Cuando se incumpla la finalidad para la que la subvención fue concedida.
- c) Cuando se haya dado a la subvención un uso distinto de aquel para el que fue concedida.
- d) Cuando en el material publicitario se obvie el patrocinio del Ayuntamiento de Pasaia.
- e) Cuando no se haya presentado en el plazo indicado la documentación requerida para la justificación de la subvención recibida.
- f) Cualquier otra causa prevista en el número 1º del art. 37 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.